Udalan dagoen zatiketa politikoaren argitan, gomendagarria izan daiteke koalizio-gobernuak bilatzea, aurretik ditugun errorei heltze aldera gasteiztarrei gobernu-taldean egonkortasun handiagoa eskaintzeko.

Esandako akordioa hamar jarduera-ardatzetan oinarritzen da. Honako ezaugarriak dituen hiri ereduaren eraikuntzan aurrera egitea da helburua: hiri modernoa, askotarikoa eta anitza; hiri jasangarria eta karbonoari dagokionez neutroa; lehiakorra eta kulturari dagokionez bizia; bere potentzialtasun guztiak aprobetxatzen dituen. Hiri eredu horretan, erreferentea izango da arlo hauetan: gizarte eta bizikidetzaren politikan; ongizatean eta bizi-kalitatean; mugikortasunean; kulturari, kirolari eta aisiari dagokionez erakargarria; ehun ekonomikoaren garapenean eta eskaintza turistikoa erakargarrietan. Horrez gain, hiri kohesionatu bat lortzeko beharrezkoak diren inbertsioak egingo dira.

Gobernagarritasun-akordioaren helburuek indarrean dira eta ondo betetzen ari dira. Hala ere, bi alderdi politikok beharrezkotzat jotzen dugu Vitoria-Gasteizko Udalarari bultzada politiko berri bat ematea koalizio-gobernu bat eratuta. Koalizio-gobernu horrek gobernagarritasun-akordiotik

eratorritako legealdirako plana ondo gauzatzea ahalbideratuko du. Adostasun politikoan, zorrotasunean, jarduera publikoaren eraginkortasunean, entzutean eta herritarren parte hartzean oinarrituta eraiki nahi dugun hiri ereduan aurrera egitea ahalbideratuko du.

Akordio berri honen oinarrian joan den uztailean sinatutako “Vitoria-Gasteizerako gobernagarritasun-akordiorako oinarriak” izeneko dokumentuaren berrikuspena dago. Gaurtik hasita honako izen hau du:

“Vitoria-Gasteiz hirirako EAJ-PNV/PSE-EE gobernu-akordioa”

Vitoria-Gasteiz Euskadiko hiriburua da eta bertan daude kokatuta erakunde komunak. Erakunde horiek kontuan hartu behar dituzte errealitate hori eta bertan eskaintzen diren zerbitzu eta baliabideak.

Gainera, Vitoria-Gasteiz, Arabako lurralde historikoan biztanle gehien dituen udalerrria da. Arabako biztanleen %80 inguru Vitoria-Gasteizen bizi da. Horrez gain, hiriak zerbitzua ematen die beste herri batzuetan bizi diren arabar askori. Izan ere, Vitoria-Gasteizen jasotzen dute arreta mediko espezializatua eta derrigorrezkoa ez den hezkuntza. Hirian egiten dituzte erosketak, hirira etortzen dira administrazio publikoarekin dituzten hainbat harreman gauzatzerako. Arabar askok egunero Vitoria-Gasteizen lan egiten dute, industria eta logistika arloak oso errotuta daudelako.

Errealitate hau presente egon behar da eskaintzen diren zerbitzu publikoak mantendu eta hobetzeko beharrezkoak diren politika publikoak martxan jartzeko orduan.

Azken legealdian krisiaren ondorioak presente egon dira gure hirian. Langabeziaren, enplegu prekarioen eta gizarte-bazterkeriaren gorakada, sentimendu xenofobo eta arrazisten gorakadarekin batera, bizikidetzaren arazoak sortzen ari da eta Udalak eragotzi egin behar ditu.

Azken hilabeteetan diru-sarrerak eta ohiko gastuak bat ez datozela antzeman dugu eta horrek epe luzera begira zerbitzuak mantentzeko neurriak hartzea eskatzen du. Diru-sarrerak beharrezkoa den gastuen egiturara egokitu behar ditugu Vitoria-Gasteiz egun den hiria izaten jarraitzeko: hiri solidarioa; kultur, kirol eta aisialdi ekintza ugari dituen; bertan bizi garenon eta bisitatzen gaituztenen bizi-kalitatea hobetzen dituen azpiegitura eta jarduerak dituen hiria.

Bi alderdiok Vitoria-Gasteizko Udalean ditugun udal taldeok uste dugu EAJ-PNVk eta PSE-EEK lankidetzan aritzeko erakutsitako jarrera gure jarduera-eremura hedatu daitekeela Vitoria-Gasteizen “Aldaketa proiektu” bat eratzeko, 2015eko maiatzaren 24an ospatutako udal hauteskundearen emaitzetatik abiatuta.

Hori dela eta, “Vitoria-Gasteiz modernoagoa, solidarioagoa, jasangarriagoa eta lehiakorragoa lortzeko akordioa” adostu dugu.

Testu berri hau 2015eko uztailean sinatutako gobernagarritasun-akordioan jasotako 10 jardueratarantz oinarritzen da. Ardatz horiei koalizio-gobernuaren erronka berriak erantsi zaizkie, 2015-2019 legealdiaren hasieran onartutako Plan Estrategikoari gehitzen zaizkiolarik:

GOBERNU KONPROMISOAK

1.- ZORROZTASUNA ETA GOBERNU ONA

Berretsi egiten dugu Vitoria-Gasteizko Udalean gobernu onaren printzipioetan oinarritutako kudeaketa ekonomiko zorrotza egitearen inguruko konpromisoa.

Horretarako ezinbestekoa da zorroztasunean eta kontrol ekonomikoan oinarritutako kudeaketa ekonomikoa. Kudeaketa ekonomiko zorrotz hori lortzeko, oinarrizko bi tresna behar dira: ordenantza fiskalak eta udal aurrekontua. Horregatik, legealdi honek dirauen bitartean bi horiek onartzeko konpromisoa hartzen dugu. Aldi berean, Vitoria-Gasteizen Akordio fiskal bat landuko dugu, Udaleko figura fiskal guztiak eta zergapetze-irizpideak modu koherentean antolatuko dituen, egonkortasun fiskala eta finantza-nahikotasuna bermatuz.

Zoruaren Udal Ondarearen kudeaketa arin eta intelijentea ezinbesteko tresna da gobernu honentzat, hirian proiektu estrategikoak eta inbertsio publikoak egitea ahalbideratuko duten baliabideak eskuratzeko.

Herri galdeketen araudia onartu eta gero, eta herritarren parte hartzean sakontze aldera, Vitoria-Gasteizko politikak diseinatu eta hiriko auzoetan inbertsioen arloan lehentasunak finkatzeko orduan parte hartze prozesuak bideratu behar dira.

Arlo honi dagokionez, talde sinatzaileek honako erronka hauek lehenestea adosten dute:

1. Udaleko kudeaketa ekonomikoan eta aurrekontu-kudeaketan zorroztasuna mantentzea, legealdi osoan aurrekontu-egonkortasuna eta finantza-oreka bermatzeko beharrezkoak diren planak garatuz.
2. Iruzuraren kontrako borrokan sakontzea, jarraian aipatzen diren helburuak lortzeko aldiro-aldi zerga iruzurraren kontrako plana ebaluatuz: iruzur-guneak identifikatzea; iruzurraren berreskurapena eta isunak kuantifikatzea; iruzurrari aurre egiteko araudia aldatzea; zergen ordainketari dagokionez gasteiztar guztien artean berdintasuna lortzea.
3. Nahikotasun, progresibotasun eta ekitate printzipioak kontuan hartuko dituen zerga erreforma adostea eta egitea. Erreforma horrek, familien eta udal erakundearen egoera

sozioekonomikoa kontuan hartuta, erantzuna emango dio Udalak aspalditik dituen egiturazko arazoei.

4. Udalean onartu zen eta 2015-2019 legealdirako planean jasota dagoen Herritarren parte hartzeari eta gardentasunari buruzko plana betetzen jarraitzea, orain arte egindako aurrerapausoak finkatuz eta honako kontu hauei helduz: Gizarte kontseilu berria eratzea; Gardentasunaren udal kontseilua; kontu emateko sistema.
5. Kode etikoa eta gobernu onari buruzko praktikak eguneratzea.

2.- VITORIA-GASTEIZKO OINARRIZKO ZERBITZU PUBLIKOAK EGONKORTZEA

Vitoria-Gasteizko oinarrizko zerbitzu publikoak egonkortzeko dugun konpromisoak TUVISARI (autobus zerbitzua bermatzea eta behar den zerbitzua ordaintzeko beharrezkoa den aurrekontuzukidura ematea), AMVISARI (kalitatezko zerbitzu publikoaren alde egitea, pribatizatzeko edozein arrisku edo baliabide falta saihestuz) eta garbiketa eta hondakinen bilketari (udalerrri osoan zerbitzua ematea bermatzen duten kalitate eta ikuskaritza sistemak ezartzea) lehentasuna ematetik abiatzen da.

Arlo honi dagokionez, talde sinatzaileek honako erronka hauek lehenestea adosten dute:

1. TUVISAREN autobus multzoa berriztatzea eta instalazio berriak eraikitzea, energia berriztagarriak erabiltzea ahalbideratuz.
2. AMVISA sozietateak uren ziklo integralaren zerbitzu publikoa eskaintze aldera dituen erronkei heltzea, uraren hornikuntza eta saneamendu sarea berriztatzeko lanekin jarraituz.
3. Kalitatezko garbiketa zerbitzuaren kudeaketa bermatzea, honako ezaugarri hauek gogoan hartuta: garbiketarako gailuen erabilera egokiaren inguruan herritarren kontzientziak eta sentiberatzea sustatzea; kontratatutako eta hitz emandako zerbitzuen betepen egokia bermatzeko kontrol sistemak hobetzea.
4. Segurtasun eremuak sortzea, horietako bakoitzean arduradun solaskide bat egongo delarik.

3.- ENPLEGUA ETA JARDUERA EKONOMIKOA, LEHENTASUN

Enplegua sustatu eta ekonomia berpizteko politikak lehentasun bat izango dira Vitoria-Gasteizko gobernu jardunean. Ekonomia sustatzeko sailean sektore ekoizleak sustatuko dira ekonomia

errealaren garapenean laguntzeko. Udalaren obra eta zerbitzu kontratueta gizarte klausulak txertatuko dira enplegua lortzeko zailtasun gehien dituzten pertsonen kontratazioa ahalbideratzeko. Tokiko enplegu planen bidez kalitatezko enplegua sortuko da eta horiek martxan jartzeko Eusko Jaurlaritzarekin lankidetzan arituko da.

Ekintzailetzarekin zerikusia duen arloan, ekintzaileentzako aukerak sortzearen eta gazte ekintzaileei espazioak eskaintzearen aldeko apustua egiten da. "Gasteiz Talent"-i dagokionez, tokiko ekonomiaren inguruko Espezializazio adimendun plan bat idatziko da, aukera guneak eta etorkizuna izango duten kluster ekonomikoak bilatuz.

Tokiko merkataritzari dagokionez, Vitoria-Gasteizko Merkataritzari buruzko Plan estrategikoa beteko da. Plan horretan hiriko merkataritzari bultzada ematearen aldeko apustua egiten da, merkataritza espezializatuari eta auzoetako merkataritzari arreta berezia eskainiz.

Industriari laguntzeko, GILSA sozietatea sustatu eta birformulatuko da. Horrez gain, Arabako Foru Aldundiarekin eta Eusko Jaurlaritzarekin lankidetzan arituko da Vitoria-Gasteizko industriari laguntzeko, Industriarentzako Udal zerbitzuaren bidez industrialdeen kalitatea areagotuz.

Lagundu beharreko beste sektore bat birgaitzearekin zerikusia duena da, eraikuntza sektorearentzat aukera bat baita. Birgaitzearen inguruko udal plan bat egitea aurreikusten da etxe-birgaitzea eta kontsolidatuta dauden espazio publikoak berroneratzeko.

Lehen sektorea babesteko, udalerrian nekazaritzako elikagaien industria sustatzea eta slow food politikak gauzatzea aurreikusten da.

Arlo honi dagokionez, talde sinatzaileek honako erronka hauek lehenestea adosten dute:

1. Jasangarria eta gizartearen ikuspegitik arduratsua den kontratazioa sustatzea, kalitatezkoa eta duina den enplegua sortzeko ezinbesteko bide bezala ulertuta.
2. Lanbiderekin batera tokiko enplegu planak garatzea udalerriko langabeen kontratazioa sustatze aldera, batez ere gazteena eta luzaroan langabezian daudenena.
3. Vitoria-Gasteizko gune industrialetan jardutearen inguruko Plan integrala sustatzea.
4. Udalerriko garapen logistikoa sustatzea, batez ere VIAP-Foronda eta Jundizko gune multimodala, beti ere, zeresana duten gainontzeko administrazioekin lankidetzan eta koordinazioa bultzatuz.
5. Udalerriko sektore ekoizleak sustatzea horietako bakoitzarentzako estrategia definitu eta zehatz batekin:

- Nekazaritzako elikagaien udalerriko estrategia.
- 2015-2022 Merkataritza eta ostalaritzaren plan estrategikoa.
- Etxeak birgaitu eta espazio publikoak berroneratzeko Plana.
- Industrialdeetan jarduteko Plan integrala.
- Turismoa sustatzeko plana.

6. Norberaren konturako langileei eta autonomoei laguntzea, tarifa finkoa duen aparkatzeko txartela eta bestelako neurri batzuk erabakita.

7. Ekintzailtza eta talentua mantendu eta erakartzea sustatzea tokiko ekonomiaren inguruko espezializazio adimendunaren plana baliatuz.

8. Erreferentziak eta produktuen diferentziazioa jasoko dituen hiriko merkataritza gida bat osatzea. Produktuak internet bidez ere sal ditzaten laguntza ematea, hiriko merkataritzari laguntza logistikoa emateko zerbitzua sortuz.

4.- BIZIKIDETZA ETA GIZARTE-KOHESIOA

Vitoria-Gasteizko Udalak bizikidetzaren eta gizarte-kohesioaren alde lan egingo du, pertsona zaugarrirenetikiko elkartasun printzipioan eta udalerriko pertsona nagusienek eman beharreko arretan oinarrituta.

Gizarte bizikidetzeta eta giza eskubideekin zerikusia duen programa bat gauzatuko da honako helburu hauekin: Vitoria-Gasteizko biztanleen artean bizikidetzeta bultzatzea; gizataldeen estigmatizazioa saihestea; gizarte integrazioa bultzatu eta aniztasuna aitortzeko ekimenak abian jartzea.

Gizarte politiketan zorrotasuna bultzatzeko, Eusko Jaurlaritzarekin eta Arabako Foru Aldundiarekin lankidetzan arituko da, gizarte baliabideen kudeaketa zorrotza egiten lagunduko duten sistemak ezartzeko, elkarreragingarritasunaren eta lankidetzaren alde eginez.

Adineko pertsonen zuzendutako ekintzak osatze aldera, hirugarren adinekoei laguntza emateko programak bultzatuko dira, biztanle aktiboak izatea sustatuz.

Bestalde, Vitoria-Gasteizen pobrezia energetikoarekin zerikusia duten egoerak saihesteko planak gauzatzen jarraituko dugu laguntza programak sustatuz eta beste erakunde batzuekin lankidetzan arituz etxegabetzeak saihestu eta eragindako familiei etxebizitza bat eskaintzeko. Horrez gain, bigarren aukeraren inguruko ordenantza bat egingo dugu, egoera ekonomiko larrian

dauden kasuan, norbanakoek edo familiek ordainketei aurre egin ahal izan arte enbargo, errekaru eta interes prozedurak geldiarazteko.

Arlo honi dagokionez, talde sinatzaileek honako erronka hauek lehenestea adosten dute:

1. Aniztasunaren baitan bizikidetzaren sendotze eta herritarren ongizatea sustatzea, gizarte-inklusioko aukera berdintasunean bultzatuz.
2. Adineko pertsonen bakardadea eta isolamendua arintzea, beren bizi-kalitatea bermatuz.
3. Eskumen arloko marko berriaren eta Gizarte Politika Sailaren 2016-2019 Plan Estrategikoaren argitan Gizarte zerbitzuak berrantolatu eta sendotzea.
4. Vitoria-Gasteiz haurrekiko eta pertsona nagusiekiko lagunkoia den hiri bezala sendotzea.
5. Genero indarkeria egoerak modu aktiboan detektatzea sustatzea eta berdintasun politikak garatzea. Casa de las Mujeres-Gasteizko Emakumeen Etxea martxan jartzea.
6. IV Gazte Plana landu eta garatzea eta gazte lonjak arautuko dituen ordenantza egitea.
7. Zailtasun ekonomikoak dituzten eta gizarte-bazterketa arriskuan dauden pertsona eta familiei Bigarren aukera bat emateko ordenantza idaztea.
8. Eusko Jaurlaritzarekin ekimenak koordinatzea ikastetxeen "getizazioa" saihesteko.
9. Iruzurra desagerrarazte aldera, laguntza publikoen kontrolari dagokionez lan egiten jarraitzea.

5. ETXEBIZITZEN ETA AUZOEN BIRGAITZEA

Vitoria-Gasteizko Udalak etxebizitzak eta hiriko auzoak birgaitzeko politiken alde egingo du.

Horretarako, Vitoria-Gasteizko udal gobernua igogailuak jartzeko laguntzak sustatuko ditu, horretarako laguntzak osatuz eta auzo komunitateei aholkularitza emanez, bereziki pertsona nagusiak eta mugikortasun urriko pertsonak bizi diren komunitateei.

Vitoria-Gasteizko auzo zaharrenak hobetzearen aldeko apustua egingo da. Horretarako, auzoko kolektiboekin elkarlanean inbertsio plan berezi bat proposatuko da eta Berroneratzeko Plan

integrala landuko da. Gainera, auzoetan eskaintzen diren zerbitzu publikoen inguruko auditoria bat egingo da horien betepena egiaztatzeko eta Vitoria-Gasteizko zonalde guztietan zerbitzuak bermatzeko plana proposatuko da. Aldi berean, Eusko Jaurlaritzarekin lankidetzan arituko da Koroatze auzoko proiektuari dagokionez, auzoaren gizarte-berroneratzea lortzeko politikak ere txertatuz.

Horrez gain, landa-eremuan dauden azpiegituren eta eskaintzen diren udal zerbitzuen azterketa bat egingo da horiek hobetu eta herritarren premiei erantzun diezaieten.

Ensanche 21 Zabalgunea sozietateak kontsolidatuta dagoen hiria birgaitzeko sozietate moduan jardungo du. Ekonomiaren ikuspegitik suspertu egingo da eta hiria berroneratzea tresna gisa erabiliko da, haren deskapitalizazioa saihestuz.

Arlo honi dagokionez, talde sinatzaileek honako erronka hauek lehenestea adosten dute:

1. Zaharkituta edo narriatuta egonik berroneratzea behar duten guneen diagnostikoa egitea eta, ondoren, espazio publiko ahulenak berroneratzeko Plana egitea. Plan horrek auzo desberdinetan dauden espazio publiko ahulenak jasoko ditu. Horrez gain, peatonalizazioa, praktika osasungarriak zabaltzea, garraio publikoa eta eraginkortasun energetikoa sustatuko ditu.
2. Auzo kontsolidatuetan etxeak birgaitzeko eta eraikinetan igogailuak jartzeko laguntza-programak sustatzen jarraitzea. Baita eskaileretan eta atarietan arkitektura-oztopoak kentzeko ere.
3. Erdigune historikoari arreta berezia eskaintzea, bere ezaugarriengatik, merkataritzari eta turismoari dagokionez dituen potentzialtasunengatik eta monumentu-multzo bezala duen katalogazioarengatik.
4. Gizarte politika Sailak eta Ensanche 21 Zabalgunea sozietateak modu koordinatuan gizarte-alokairu programa bat lantzea, erabiltzaileek etxebizitzan egindako birgaitzeak errenta ordaintzeko balioko dutelarik.
5. Salburua eta Zabalgana auzo berrietan Zerbitzu eta ekipamenduen Plana osatzea eta hiri kontsolidatuarekin integratzea.
6. Hiriaren erdigunea berpiztea hiru neurri nagusi abian jarrita:
 - a. Handizkako azokaren eta Santa Barbara plazaren inguruan dagoen espazio publikoa hobetzea, Andre Maria Zuriaren plazaraino joango den eta plaza guztiak lotuko dituen pasabidea sortuz.

- b. Erabiltzen ez diren eraikin, lokal eta espazioak berreskuratuz.
 - c. Banco de Españaren garai bateko eraikinean egiten ari den Biktimen museo memorialaren inguruan dagoen espazio publikoa hobetzea, espazioei duintasuna emanez eta Olagibel arkitektoak diseinatutako Los Arquillos izeneko monumentu-multzoari dagokion balioa emanez.
7. Madrid kalea / Tres Santos aldea berrurbanizatzeko jarduera sustatzea, inguru horretan BRTa martxan jartzeko aurreikusita dagoen proiektua aprobetxatuz.
8. Jarduera integral baten bidez Los Herrán kaleko ardatzaren urbanizazioa hobetzea.
9. Koroatze auzoko birgaitze plan integral eta integratua babesten eta sustatzen jarraitzea.

6.- GARRAIO PUBLIKOA ETA MUGIKORTASUNA

Mugikortasun politikak oinarritzkoak dira etorkizunari begira eta horregatik erreferente bat izango dira Vitoria-Gasteizko gobernu-jardunean:

Tranbiaren aldeko apustua irmoa da. Hirian tranbia hedatzen jarraituko da, ekialdea eta mendebaldea, Salburua eta Zabalgana, lotu eta unibertsite kanpusera hel dadin. Tranbia hegoalderantz hedatzeak, hiriak tren-tranbia geltoki intermodal bat izatea ahalbideratuko du.

Aireportuari dagokionez, behar diren gestio politiko guztiak egingo dira honako helburu hauek lortzeko: gure aireportuaren gaitasuna defendatzea; eguneko 24 orduetan bere jarduera mantentzea; mugako ikuskaritza berreskuratzea; gainontzeko euskal aireportuen eta inguruko aireportuen jarduerarentzat osagarri izango diren hegaldi transozeanikoak sustatzea, Arabako Foru Aldundiarekin VIAP bultzatzeko lankidetzan arituta.

TUVISARI dagokionez, Vitoria-Gasteizko autobus zerbitzua bermatuko da, kalitatea hobetzeko beharrezkoak diren doikuntzak eginda. Autobus multzoaren berriztatzea eta BRT (autobus azkarrak) lineak ezartzea bultzatuko da.

Vitoria-Gasteizko udal gobernuak Sustapen Ministerioarekin eta Eusko Jaurlaritzarekin batera lan egingo du AHT hirira heltzeko proiektuari dagokionez, trena hirian integratzea bilatuz.

Bestalde, batetik bestera mugitzeko da, bizikleta erabiltzea sustatzen jarraitzeko ahalegina egingo da, *Gasteizbike* izenarekin.

Arlo honi dagokionez, talde sinatzaileek honako erronka hauek lehenestea adosten dute:

1. Gaitasun handiko garraio publikoa (tranbia eta BRT) hedatzea auzo eta hiritar gehiagori zerbitzua emateko. Lehen fasean, tranbia hegoalderantz (EHUren fakultateetearaino) eta ekialderantz (Salburua auzoan dagoen La Unión plazaraino) hedatuko da. Jarraian egingo den bigarren fasean, gaitasun handiko garraio publikoa mendebalderantz hedatuko da (Zabalgana auzoraino).
2. Vitoria-Gasteizko Mugikortasun jasangarriaren Plana zabaltzea Salburua eta Zabalgana auzoei zerbitzu hobea eskaintzeko. Hiriko gainontzeko lekuetan bezala, gehienik ere 15 minuturo autobusa izatea eta 10 minutu baino gutxiago ibilita autobus geltoki bat izatea.
3. TUVISAren linea periferikoa BRT edo gaitasun handiko autobus azkar elektriko bihurtzea, garraio jasangarria den heinean.
4. Estatuko Gobernuarekin, Eusko Jaurlaritzarekin eta Arabako Foru Aldundiarekin akordioa bultzatzea AHT edo abiadura handiko trena Vitoria-Gasteizen integratu eta Las Trianas inguruan lurrazpiko geltoki intermodal bat eraikitzearen aldeko apustua eginez, horretarako egungo trenbidea ahalik eta gehien aprobetxatuz eta inbertsioa minimizatuz.
5. Forondako aireportuaren aldeko apustu argia egitea, AENAK 24 orduko jarduna, mugako ikuskaritza eta eskaintzen dituen zerbitzuak emateko langileak itzul diezazkion. Halaber, gainontzeko erakundeekin lankidetzan, Vitoria-Gasteizko aireportuak karga aireportu, aireportu industrial eta bidaiari aireportu moduan zuen jardun osoa berreskuratzeko ekimenak abian jartzea. Datozen urteetan -2020a arte- Udalak 1.000.000 euro inbertituko ditu aireportua sustatzeko.
6. Mugikortasun aktiboa sustatzea, oinezkoentzako hiri ibilbide berriak eraikiz eta txirrindularientzako sare nagusia osatuz.
7. TUVISA, besteak beste, honako egiteko hauek izango dituen mugikortasun agentzia integralean bihurtzea: aparkalekuen kudeaketa; garraio publiko desberdinen (autobusak, tranbia, BRTa) antolaketa; bizikleta bidezko garraioa eta oinezkoentzako ibilbideak koordinatzea; bizikleta elektrikoaren alokairu zerbitzua koordinatzea.
8. Landa-eremurako garraio zerbitzua hobetzea. Vitoria-Gasteiz hiri bat baino gehiago da. 61 kontzejuk osatzen dute.
9. Hiriaren erdialdetik igarota, ekialdea-mendebaldea loturak hobetzea.

10. Udaltzaingoaren menpe, hirigunean zirkulazioa antolatuko duen mugikortasun agentearen figura sortzea.
11. Arabako mugikortasunaren agintaritzea garatzea.
12. Modu progresiboan, eta azpiegitura berrien ezarpena kontuan hartuta, garraio publiko desberdinen tarifen integrazioa sustatzea.
13. Arabako Parke Teknologikora doan garraio zerbitzua mantentzea.

7.- HIRI EREDUA

Hirigintza jasangarriarekin dugun konpromisotik abiatuta, Hiri-antolamenduko plan orokorraren eguneratzea bultzatuko da, trinkoa, jasangarria eta pertsonen neurrikoa den hiria definituz.

Aurreko legealdian hasitako Ekipamendu Plana amaitu eta adineko pertsonentzako zentroak txertatuz eguneratuko da.

Vitoria-Gasteiz, hiri berde eta adimenduna kontzeptua sustatuko dugu. Teknologia berriak erabiliz, baliabide natural eta ekonomiko gutxiago kontsumitzen dituzten udal politika jasangarriagoak garatuko ditugu.

Eraztun berdea osatzeaz gain, honako hauek dira gure helburuak: hiriaren hegoaldea eta Gasteizko Mendiak babestea; hiri azpiegitura berdeen aldeko apustua egitea; ingurumenarentzako mehatxuei aurre egitea, besteak beste, fracking-a edo Garoña.

Hirigintza kudeaketarekin, lurraldearen planifikazioarekin eta enpleguarekin zerikusia duten politiketan nekazaritzako elikagaien estrategia berri bat txertatuko dugu, sektoreko eragileekin lankidetzara eta parte hartze prozesu bat garatuta.

Arlo honi dagokionez, talde sinatzaileek honako erronka hauek lehenestea adosten dute:

1. Legealdi honetan Hiri-antolamenduko plan orokorraren berrikuspenera tramitatu eta onartzea.
2. Aurreko legealdian hasitako Ekipamendu Plana amaitu eta auzo kontsolidatuetako adineko pertsonentzako zentroak txertatuz eguneratuko da.
3. Lizentziak tramitatu eta emateko prozedurak berrikusiko dira, horiek arintze aldera.

4. Hiri berde eta adimenduna sustatzea honako arlo hauetan ekimenak garatuta: efizientzia energetikoa; karbonoari dagokionez neutroa den mugikortasuna; gobernu onari, herritarren parte hartzeari eta gardentasunari dagokionez, informazioaren eta ezagutzaren teknologien erabilera.
5. Eraztun berdea hegoaldeetik eta ekialdeetik ixteko aurrerapausoak ematea.
6. Udalerrian nekazaritzako elikagaien strategiaren planifikazioa amaitzea.

8.- VITORIA-GASTEIZ: HIRI BIZIA

Hirian gizarte-, merkatal- eta kultur-bizitza biziberritzeko oso garrantzitsua da hiri jarduerak sustatzea. Testuinguru horretan, ezinbestekoa da tokiko kultur-sarearekin lankidetzaren berreskuratzea, bertako talentua eta kulturaren eta artearen edozein arlotan sorkuntza sustatzeko. Aldi berean, kanpoan proiektuak duten kultur ekintzen aldeko apustua egin behar da.

Berretsi egiten dugu hirian turismoa eta edozein motatako kongresu eta ekitaldiak sustatze aldera udal politikak garatzeko dugun konpromisoa.

Horretarako, gainontzeko hiriburuekin, Foru Aldundiekin eta Eusko Jaurlaritzarekin batera, Vitoria-Gasteizen kongresu eta ekitaldiak jasoko dituen urte oso programazioa diseinatuko dugu.

Kirol esparruan, oinarrizko kirola eta herritarren artean aztura osasungarrien adierazle den kirola bultzatzeko konpromisoa hartzen dugu. Era berean, hiria dinamizatzen duten kirol esparruko jarduerak bultzatuko ditugu (triatloia, Martin Fiz maratoia etab.).

Araba osoa kontuan hartuta eta Foru Aldundiarekin elkarlanean, Vitoria-Gasteiz lurralde historikoko beste zonalde batzuetarako ataria izan behar da.

Arlo honi dagokionez, talde sinatzaileek honako erronka hauek lehenestea adosten dute:

1. Kulturaren inguruko Plan estrategikoa landu eta garatzea, hiriko kultur eragileekin lankidetzan.
2. Kultura Eratzen Zentroa martxan jartzea.
3. Printzipal Antzokia eraberritzeko plana egitea.
4. Arte eta lanbide eskola sustatzea eta hezkuntza eskaintza zabaltzea.

5. Tokiko sorkuntzari bultzada ematea proiektuen urte anitzeko deialdiaren eta babesletza emateko urteroko deialdiaren bidez.
6. Tokiko artista gazteentzako erakusketa zirkuitu bat martxan jartzea.
7. Alberto Schommer zentro museoaren proiektua egitea.
8. Etxe erregionalekiko harremana eta bultzada sustatzea. Etxe erregionalen inbertsioak finantzatzeko laguntza berreskuratzea.
9. Kirol instalazioetan egin beharreko inbertsio eta mantenuen inguruko plana egitea.
10. Lakuabizkarra eta Zabalganen futbol zelai berriak eraikitzea.
11. Udal kirol eskaintza berrikusi eta hobetzea.
12. Kirol elektronikoa sustatzea eta Vitoria-Gasteiz Sports-en hiriburu bezala kokatzea.
13. Gainontzeko erakundeekin Arabarako eskaintza turistikoa koordinatzea, Araban eta Euskadin jarduera desberdinak eskainiz, bisitatzen gaituztenek gure artean egun gehiago eman ditzaten.
14. Vitoria-Gasteiz turismo-helmuga gisa sustatzea: Turismo mahaia sustatzea; kongresu azpiegiturak bultzatzea; turismo jasangarria, familiarra eta enologikoa lantzea; beren berezitasunengatik hirira pertsona ugari erakartzen dituzten ekimenak berreskuratu eta areagotzea.
15. Jende gehien dabilen kaleetan eta geltokian informazio turistikoa emateko guneak jartzea, behin betiko kokaleku bat aurkitu arte, turismo bulegoan ematen den arreta arintzeko, sektorearekin lankidetzan.

9.- BALOREAK ERAIKITZEN: HIRI HEZITZAILEA

Garapenerako lankidetzaren gizarte baten elkartasun maila ezagutzeko adierazlerik egokiena da. Vitoria-Gasteizko Udalean nazioarteko garapenerako lankidetzaren arloko politikak berreskuratu behar dira.

Berdintasunik gabe ez dago askatasunik ez demokraziarik. Berdintasuna landu eta genero indarkeriaren kontrako borroka egiteko politikak bultzatuko ditugu, lehentasuna baita gizarte arloan. Casa de las Mujeres-Gasteizko Emakumeen Etxea martxan jarriko dugu.

Gasteiztarren artean dagoen aniztasuna modu aktiboan defendatuko dugu, giza eskubideen errespetua oinarritzat hartuta.

Arlo honi dagokionez, talde sinatzaileek honako erronka hauek lehenestea adosten dute:

1. 2016-2019 hirurtekorako onartutako Garapenerako lankidetzari buruzko plana garatzea.
2. IV Berdintasun Plana martxan jartzea.
3. Genero indarkeria arloan lan egiten duen udaltzainen taldea sendotzea, Gizarte politiken sailarekin indarkeriaren prebentzioa eta biktimei babesa ematea koordinatuz.
4. Hezkuntza Sailarekin lankidetzan eta koordinazio lanetan aritzea familia etorkinetan jaiotako ikasleak hiriko bizitzan txertatze aldera, jatorriaren, erlijioaren edota bestelako arrazoen arabera getoak saihestuz.
5. Biktimen memoria berreskuratze aldera eta askatasunaren eta indarkeriaren kontrako sinbolo den heinean, Biktimen Memoriala babestea.

10.- VITORIA GASTEIZ, EUSKADIKO HIRIBURU

Eusko Jaurlaritzarekin lankidetzan arituko gara hiriburutza kanona sendotzeko.

Vitoria-Gasteiz, Euskadiko hiriburu den heinean, erreferente bat izan behar da euskaldun guztion eta gasteiztarren ezaugarri eta ikur den euskararen sustapenean. Horregatik, gainontzeko alderdi politikoekin lankidetzan, Gasteiz Antzokia proiektua garatuko dugu.

Vitoria-Gasteiz, Euskadiko hiriburu den heinean, ezin da gainontzeko euskal hiriekin lehian arituta eraiki. Erakunde arteko lankidetzaren eta osagarritasunaren aldeko apustua egiten dugu. Horretarako, lan mahai iraunkor bat bultzatuko dugu gainontzeko hiriburuekin.

Arlo honi dagokionez, talde sinatzaileek honako erronka hauek lehenestea adosten dute:

1. Vitoria-Gasteiz Euskadiko hiriburu dela sustatzea, etengabe hiriburutza kanona hobetzen ahaleginduz.

2. Gasteiz Antzokia martxan jarrita, Oihaneder-Euskararen Etxea proiektua osatzea.
3. Euskadiko gainontzeko hiri eta lurraldeekin lankidetzeta eta osagarritasuna sustatzea.

Vitoria-Gasteizen, 2016ko maiatzaren 23an.

José Antonio SUSO PEREZ DE ARENAZA
EAJ-PNV

Cristina GONZALEZ CALVAR
PSE-PSOE

Gorka URTARAN AGIRRE
EAJ-PNV

PEIO LOPEZ DE MUNAIN LOPEZ DE LUZURIAGA
PSE-PSOE